



LASARTE-ORIAKO UDALA

Egutegi fiskala

Lasarte-Oria udalerriko zergapekoei jakitera ematen zaie 2020ko urtealdiari dagozkion Zerga eta Prezio Publikoen Egutegi Fiskala, bertan horien ordainketa egiteko epeak ezartzen direlarik. Epeak ezarritako egunean bukatuko dira, edo hori larunbata edo jaieguna bada, hurrengo lanegunean.

Errolda fiskalak, non ordaindu beharreko kuotak eta hauek finkatzen dituzten zergako elementuak ezarten baitira, jendaurreko ikusgai jarriko dira udaletxeo bulegoetan dagozkien kobrantza-epeak hasi baino hamabost egun lehenagotik eta hamabost eguneko epez.

Kuotak eta gainerako zerga-elementuak, dagozkien erregistroetan alta ematerik suposatzen ez dutenez gero baizik eta subjektu pasibo bakoitzari banaka jakinarazi zaien egitate zergagarri bati dagozkenez gero, kolektiboki jakinaraziak izango dira, Zergen Foru Arau Orokorreko 98.3 artikuluan aurrikusitakoaren babespean.

Errolden erakustaldi publikoen aurka birjarpeneko errekurtsua tartejarri ahal izango da erakustaldi publikoko epearen azken egunetik zenbatzen hasi eta hilabeteko epean.

Azaldutako egutegi fiskal honen iragarkiak kobrantza iragarkiaren zeregina ere beteko du. Kobrantza ondorengo zehaztapenen arabera egingo da:

A) Pagatzeko medioak: erabilera legaleko dirua edo Udalaren aldeko txeke izenduna.

Era berean, subjektu pasiboei helarazitako dokumentu barra-kodedunaren bitartez pagatu ahalko da, xede horretarako moldatutako diru-kutxetan, edo Internet bidez, kreditu-txartela erabiliz edota bankuko kontuan kargatzeko aginduz.

Ordaintzeko lekuak: Udalaren bulegoetan eta pagamenduko dokumentuan ageri diren entitate kolaboratzaileetan:

- Kutxabank
- Laboral Kutxa
- Caja Rural de Navarra
- Banco Sabadell Guipuzcoano
- Banco Santander
- Caixabank
- Bankoa

C) Borondatez pagatzeko periodo gisa seinalatutako epeak igarotakoan, zorrak premiatzeko prozeduraren bidez ordainaraziko dira, eta ondoko gaitzargu hauek sorraraziko dituzte:

- Baldin eta sartu gabeko tributu-zorra premiatzeko probidentzia zordunari jakinarazi baino lehen ordaindu bada, gaitzargu exekutiboak ehuneko bostekoa izango da.

- Baldin eta diru-sarrera premiatzeko probidentziaren notifikazioa jaso ondoren eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorreko 61.5. artikuluan ezarritako epea igaro baino lehen egiten bada, ordaindu beharreko premiamenduzko gaitzargua ehuneko hamabostekoa izango da.

AYUNTAMIENTO DE LASARTE-ORIA

Calendario fiscal

Se pone en conocimiento de los contribuyentes del municipio de Lasarte-Oria, el Calendario Fiscal de los Tributos y Precios Públicos del ejercicio de 2020, donde se establecen los períodos para pagarlos. Los períodos finalizarán el día señalado, o siendo este sábado o inhábil, el inmediato hábil posterior.

Los padrones fiscales, conteniendo las cuotas a pagar y los elementos tributarios determinantes de las mismas, se expondrán al público en las oficinas municipales quince días antes de iniciarse los respectivos períodos de cobro y por un período de quince días.

Las cuotas y demás elementos tributarios en cuanto no constituyen altas en los respectivos registros, sino que hacen referencia a un hecho imponible ya notificado individualmente al sujeto pasivo, serán notificadas colectivamente, al amparo de lo que prevé el art. 98.3 de la Norma Foral General Tributaria.

Contra la exposición pública de los padrones se podrá interponer recurso de reposición en el plazo de un mes a contar desde la fecha de finalización del período de exposición pública.

Este anuncio de calendario fiscal expuesto cumplirá también la función de anuncio de cobranza. Cobranza que se efectuará de acuerdo con los siguientes extremos:

A) Medios de pago: Dinero de curso legal o cheque nominativo a favor del Ayuntamiento.

Asimismo se podrá pagar mediante el documento remitido a los sujetos pasivos, provisto de código de barras, en los cajeros habilitados a este efecto, o por Internet, utilizando tarjeta de crédito o bien ordenando el cargo en cuenta bancaria.

Lugares de pago: En las oficinas municipales y en las entidades colaboradoras que figuran en el documento de pago:

- Kutxabank
- Euskadiko Kutxa
- Caja Rural de Navarra
- Banco Sabadell Guipuzcoano
- Banco Santander
- Caixabank
- Bankoa

C) Transcurridos los plazos señalados como períodos de pago voluntario, las deudas serán exigidas por el procedimiento de apremio y devengarán los siguientes recargos:

- Cuando la deuda tributaria no ingresada se satisfaga antes de que haya sido notificada al deudor la providencia de apremio, el recargo ejecutivo será del cinco por ciento.

- Cuando el ingreso se realice después de recibir la notificación de la providencia de apremio y antes de transcurrir el plazo previsto en el artículo 61.5 de la Norma Foral General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa, el recargo de apremio a satisfacer será del quince por ciento.



- Epe hori igaroz gero, exiji daitekeen premiamenduzko gainkargua ehuneko hogeikoa izango da; berandutzako interesak eta, kasua hala bada, gertatutako prozesu-kostuak aplikatuko dira.

Eta hala ageriko egiten da herritar guztiak jakinaren gainean egon daitezen, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergabilketa Erregelamendua onartzen duen abuztuaren 2ko 38/2006 Foru Dekretuko 18. artikulua xedatzen duena betez eta horretarako onetsitako Zergak eta Gainerako Eskubide Publiko Lokaleko Diru-sarrerak Kudeatzeko, Biltzeko eta Ikuskatzeko Udal-Ordenantzako 11, 26, 27 eta 28. artikuluek diotenarekin bat.

Lasarte-Oria, 2020ko urtarrilaren 22a.

- Transcurrido dicho plazo, el recargo de apremio exigible será del veinte por ciento; se aplicarán intereses de demora y, en su caso, las costas que se produzcan.

Lo que se hace público para general conocimiento conforme dispone el artículo 18 del Decreto Foral 38/2006, de 2 de agosto, por el que se aprueba el Reglamento de Recaudación del Territorio Histórico de Gipuzkoa y los artículos 11, 26, 27 y 28 de la Ordenanza General Municipal de Gestión, Recaudación e Inspección de los tributos y otros ingresos de derecho público locales aprobada al efecto.

Lasarte-Oria, a 22 de enero de 2020.

Alkatea/El Alcalde
Agustín Valdivia Calvo

Ordaintzeko epeak

Urteko aldizkakotasunaren zergak:

- *Ibilgailuen gaineko Zerga:* Martxoaren 1etik apirilaren 15era.
- *Zaborren tasa:* Apirilaren 1etik maiatzaren 15era.
- *Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga:* Maiatzaren 15etik ekainaren 30era.
- *Ekonomi jardueren Gaineko Zerga:* Urriaren 1etik azaroaren 10era.
- *Ibien tasa:* Urriaren 1etik azaroaren 15era.
- *Orokorra:* Urriaren 1etik azaroaren 15era.

Lauhilabeteko aldizkakotasunaren tasa:

Ura eta estolderia:

- 3. lauhilabetealdia: Otsailaren 1etik martxoaren 15era.
- 1. lauhilabetealdia: Ekainaren 1etik uztailearen 15era.
- 2. lauhilabetealdia: Urriaren 1etik azaroaren 15era.

Hiruhilabeteko aldizkakotasunaren tasa:

Azoka ibiltaria:

- 1. hiruhilabetealdia: Urtarrilaren 1etik 25era.
- 2. hiruhilabetealdia: Apirilaren 1etik 25era.
- 3. hiruhilabetealdia: Uztailearen 1etik 25era.
- 4. hiruhilabetealdia: Urriaren 1etik 25era.

Hilabeteko aldizkakotasunaren tasak:

Dantza eta balleta: Likidatutako hil bakoitzaren aurreko hilaren 15etik 25era.

Etxe-laguntza eta Babespeko etxebizitzan egonaldia: Likidatutako bakoitzaren ondorengo hilaren 15etik hilabete.

Ingurunean mantentzeko programa, Udalaren Musika Eskola eta Euskaltegi: Hil bakoitzaren 25.egunetik 30.era bitartean.

Plazos de pago

Tributos de periodicidad anual:

- *Impuesto sobre Vehículos:* Del 1 de marzo al 15 de abril.
- *Tasa de Basuras:* Del 1 de abril al 15 de mayo.
- *Impuesto sobre Bienes Inmuebles:* Del 15 de mayo al 30 de junio.
- *Impuesto sobre Actividades Económicas:* Del 1 de octubre al 10 de noviembre.
- *Tasa de Vados:* Del 1 de octubre al 15 de noviembre.
- *General:* Del 1 de octubre al 15 de noviembre.

Tasa de periodicidad cuatrimestral:

Agua y alcantarillado:

- 3.er cuatrimestre: Del 1 de febrero al 15 de marzo.
- 1.er cuatrimestre: Del 1 de junio al 15 de julio.
- 2.º cuatrimestre: Del 1 de octubre al 15 de noviembre.

Tasa de periodicidad trimestral:

Mercado ambulante:

- 1.er trimestre: Del 1 al 25 de enero.
- 2.º trimestre: Del 1 al 25 de abril.
- 3.er trimestre: Del 1 al 25 de julio.
- 4.º trimestre: Del 1 al 25 de octubre.

Tasas de periodicidad mensual:

Danza y ballet: Del 15 al 25 del mes inmediato anterior a cada mes liquidado.

Asistencia domiciliaria y Estancia en piso tutelado: Un mes desde el 15 del mes inmediato posterior a cada mes liquidado.

Programa mantenimiento en el entorno, Escuela de Música Municipal y Euskaltegi: Entre los días 25 y 30 de cada mes.